

Euskal Herri euskalduna eraikitzea da Euskararen Gizarte Mugimenduaren helburua. Beste hitzetan esanda, euskal hiritarren izaera eleanitza (edo elebiduna) komenigarritzat jotzen dugun bezala, ukatzen dugu elebitasun soziala. Euskal Nazioak euskalduna izan behar duelakoan gaude, Herri bati hizkuntza bat baitagokio. Elebitasun soziala diglosikoa da ezinbestean, eta gurea den egoera minorizatuan diglosia euskararen kontrako gertakari soziala denez, ez dugu onartzen hizkuntz politikaren helburutzat "gizarte elebiduna" ezartzea. Nora goazen jakin ondoren, nondik abiatzen garen jakitea ezinbestekoa da burutu behar dugun bidea zehazteko. Bi hitzetan esanda honela definituko genuke euskararen egoera: oro har aurrera egin du euskararen normalkuntza prozesuak, baina minimoen azpian segitzen du.

EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETA EUSKARAREN NORMALKUNTZA

Maddalen Ezkerra eta Iñaki Fernandez
Euskal Herrian Euskaraz

EUSKARAREN NORMALKUNTZAZ

Helburua: Euskararen normalkuntzaz ari garenean ezinbestekoa da, lehenik eta behin, indartu nahi dugun euskalduntze prozesuaren helburua zein den definitzea, helburu garbirik gabe oso zaila izango baita elkarlana eta dinamika eraginkorra bideratzea. Gure ustez, Euskal Herri euskalduna eraikitzea da Euskararen Gizarte Mugimenduaren helburua. Beste hitzetan esanda, euskal hiritarren izaera eleanitza (edo elebiduna) komenigarritzat jotzen dugun bezala, ukatzen dugu elebitasun soziala. Euskal Nazioak euskalduna izan behar duelakoan gaude, Herri bati hizkuntza bat baitagokio. Elebitasun soziala diglosikoa da ezinbestean, eta gurea den egoera minorizatuan diglosia euskararen kontrako gertakari soziala denez, ez dugu onartzen hizkuntz politikaren helburutzat «gizarte elebiduna» ezartzea.

Abiapuntua: Hizkuntz helburua finkatu ondoren, eta helburu hori eskuratzeko izan eta landu behar ditugun bitartekoak zehaztu baino lehen, prozesuaren abiapuntua, gaurko egoera, zehaztu behar dugula pentsatzen dugu. Nora goazen jakin ondoren, nondik abiatzen garen jakitea ezinbestekoa baita burutu behar dugun bidea zehazteko. Bi

hitzetan esanda honela definituko genuke euskararen egoera: oro har, aurrera egin du euskararen normalkuntza prozesuak, baina minimoen azpian segitzen du. Izan ere, hizkuntzen arteko bizitza ez da sekulan orekatua, hortan datza diglosiaren ezaugarri nagusia. Elebitasun sozialean ematen diren mailak, nolana hikoak direlarik, iragankorrek dira, hizkuntzen artean ordezkapen prozesua etengabe martxan dagoen prozesua baita. Horregatik diogu, urte hauetan aurrera egin den arren, gaur gaurkoz gaztelera edo frantsesaren aldeko ordezkapen prozesua ez dela irauli ez Iparraldean, ezta Hegoaldean ere, euskarak ez baitauka oraindik bere etorkizuna ziurtatzeko adina ugalketa mekanismorik.

Autonomia erlatiboa: euskara guztiona eta guztiontzat bada, euskararen normalkuntza prozesua gizarte prozesu integral gisara ulertu behar dugu. Ez dago, beraz, euskararen normalkuntza euskal gizarteak bizi dituen arazoetatik at aztertu eta bideratzerik. Euskararen normalkuntza prozesuak, berezko ezaugarriak dituen arren, autonomia erlatiboa duela azpimarratu nahi dugu, eta autonomia erlatibo hori kontutan izanik definitu behar dugula helburuaren eta abiapuntuen artean dagoen bidean garatu beharreko lana.

Arazo politikoa: euskararen normalkuntza funtsean arazo politikoa denez, ez dago euskararen normalkuntza Euskal Herriaren etorkizunetik bereizterik. Euskararik gabe ez dago Euskal Herriarik, baina euskarak ez du etorkizunik Euskal Herriaren normalkuntzatik at. Gauzak horrela, apolitizismoan edota gai politiko orokorretatik at euskararen normalkuntza planteatzea okerra da. Euskara eta lurraldetasuna ezin dira berezi, euskara eta subiranotasun politikoa berezi ezin daitezkeen moduan, eta lurraldetasuna eta subiranotasuna gai politikoak dira bete-betean.

Bitartekoak: euskararen normalkuntza prozesua ezin liteke herri presio sozialaz soilik bideratu, instituzioen dinamika hutsez garatzerik ez dagoen bezalaxe. Herri dinamika eta dinamika instituzionala dira euskararen normalkuntzarako bitarteko nagusiak, eta hauen uztarkeitant datza normalkuntzaren arrakasta. Instituzioak euskararen aurkakoak direnean, edota euskararekiko politika argirik ez dutenean, ezinezkoa da herri dinamika hutsez hizkuntz ordezkapen prozesua iraultzea. Baina hori bezain argi esan behar dugu ez dagoela herri dinamikarik gabe, instituzioen dinamikaz soilik euskara normaltzerik, euskararen normalkuntzaren sujeta Herri osoa baita. Horregatik diogu euskararen aldeko dinamikak formatan eta edukietan anitza izan behar duela.

«Euskararen normalkuntza prozesua gizarte prozesu integral gisara ulertu behar dugu. Ez dago, beraz, euskararen normalkuntza euskal gizarteak bizi dituen arazoetatik at aztertu eta bideratzerik. Euskararen normalkuntza prozesuak, berezko ezaugarriak dituen arren, autonomia erlatiboa duela azpimarratu nahi dugu»

«Euskararen normalkuntza funtsean arazo politikoa denez, ez dago euskararen normalkuntza Euskal Herriaren etorkizunetik bereizterik /../ Gauzak horrela, apolitizismoan edota gai politiko orokorretatik at euskararen normalkuntza planteatzea okerra da»

Abagadunea: baina gauza bat da bitarteko horiek beharrezkoak direla esatea, eta beste bat une bakoitzean ematen den abagadunearen ondorioz bitarteko bakoitzak zer eman dezakeen jakitea. Euskararen normalkuntzari begira instituzioak beharrezkoak dira, baina horrek ez du esan nahi automatikoki instituzioetatik euskararen aldeko dinamika bideratuko denik edo hauekin elkarlana bideratzeko nahiko herri dinamika dagoenik. Ezinbestekoa da, beraz, une honetan bizi dugun errealitate politikoa aztertzea, benetakoa eta ez nahiko genukeen, abagadune azterketa global horrek soilik erakutsi baitezake euskararen normalkuntzak beharrezkoak dituen bitartekoek une honetan zer eman dezaketen. Azpimarratu beharra dago abagadune kontraesankorra dela euskararena: emaitza soziolinguistikoak, oro har, txarrak ez diren bitartean (herri nahiaren adierazle), politika instituzionalaren emaitzak (bertan nagusi diren indar politikoak) eskasak ala kontrakoak dira. Gauzak horrela, lehentasunak definitzerakoan ezinbestekotzat hartu beharko dugu hau indarrak non eta zertan jarri behar ditugunerabakitzerakoan.

Lehentasunak: Aurrekoa ikusita, argi dago lehentasuna gure indarretan eta Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduaren indartzean jarri behar dugula, instituzioen aldetik gauza gutxi etorriko delako. Baina nazionalak eta lokalak - tipologiakakoak - dira, ezberdinak baitira bertan eragiten duten faktore soziolinguistikoak. Hala ere, hasteko eta behin, beraz, nazio ikuspegitik definitu behar ditugu lehentasunak, eta bigarren maila batean, herri eta zonaldeetara egokitutakoak. Izan ere, nazio mailako perspektibarik gabe, euskararen normalkuntza prozesuaren estrategia okertu egin baitaiteke. Irizpide taktikoak estrategikoen zerbitzuan jarri behar dira, eta ez alderantziz. Azter ditzagun Euskararen Gizarte Mugimenduaren lehentasunak

EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUAZ

Hau guztia kontuan izanik, eta azken urteetako esperientzia ahanzi gabe, honakoa da EHE taldeak aurrakusten duena etorkizunerako Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduaren antolatzeaz eta ezaugarritatzeaz.

ERAKUNDE NAZIONALEN PREMIAZ

Ezinbestekoa da Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduaren hezur-dura osatzen duten talde eta erakunde nagusien izaera nazionala indartzea. EHE oso kezkatuak dago azken urteotan indartzen ari den

talde, erakunde eta dinamika sozialen desegituratze nazionalarekin. Ikastolen munduan edota irakaskuntzan gertatzen ari dena horren adierazle argiena da, baina ez bakarria. Oro har, gero eta nabariagoa da nazio perspektiba eta dinamika falta, baita nazio ikuspegia duten erakunde nazionaletan ere. Eguneroko errealtateari erantzun behar ez luke teoriarik nazio ikuspegia ahuldu behar baina hori da une hauetan gertatzen ari dena. Gauza bera esan genezake nazio egituretatik at, herrialde edota herri mailan sortzen ari den hainbat taldez.

EHEren ustez, beraz, lehentasun osoa du Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua osatzen dugun talde eta erakunde nagusiok gure nazio-tasuna indartzeko planak jorratzea, bai eraketari dagokionez, bai aldarrikapenei dagokionez eta, nola ez, baita bideratzen ditugun ekimeneetan ere.

HERRI ERAKUNDEEN ELKARLANAREN PREMIAZ

Azken urteotan asko hitz egin eta idatzi da elkarlanaz, baina elkarlana instituzioekiko egin beharreko dinamikan txertatu da nagusiki, eta ez, aldiz, Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua osatzen duten talde eta erakundeen artean garatu beharrekoan. EHEren ustez, egoera ekonomikoak itota, talde eta erakunde hauek —ikastolen mugimendua berriz horren lekukoa da, baina ez da bakarria— beren indar guztiak administrazioarekin jorratu beharreko harreman eta elkarlanean jarri dituzte, baina une berean inoiz baino isolatuagoak daude ikastolak gainerako euskararen aldeko herri talde eta erakundeek duten dinamikatik, eta oro har, Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua osatzen duten taldeek eginiko ekimenak gero eta era bakartiagoan antolatzen dira.

EHEren ustez, bigarren lehentasuna elkarlanaren inguruan garatu beharrekoa da. Gure ustez, elkarlan nagusiak Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua osatzen dugun talde eta erakundeen artekoa izan behar du, hori gabe gizarte mugimendu honen gaurko atomizazioa indartu baino ez baita egingo.

INSTITUZIO ETA INDAR POLITIKO EKIKO MENPEKOTASUNAZ

Bestalde, Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua osatzen duten talde eta erakunde gehienek bizi duten egoera ekonomiko larria dela medio, instituzioekiko bideratzen dituzten harremanak ikuspegi honen mediatizaturik egiten dira askotan. Jarrera honen ondorioz oso zail gertatzen zaie instituzio publikoekiko eta bertan nagusi diren in-

«Azken urteotan asko hitzegin eta idatzi da elkarlanaz, baina elkarlana instituzioekiko egin beharreko dinamikan txertatu da nagusiki, eta ez, aldiz, Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua osatzen duten talde eta erakundeen artean garatu beharrekoan»

«Azken urte honetan euskararen aurkako eraso indartu denean, «tolerantzia» aldarrikatu dute instituzioek eta bertan nagusi diren indarrek, baina une berean Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua ez da gai izan tolerantzia gure kasuan suizidioa dela aldarrikatzeko borroka ideologikoaren planoan»

dar politikoeikiko autonomiari eustea. Berriz ere ikastolen mugimendua dakargu hona, baina ez da eredu bakarra, tamalez. EHEren ustez, ikuspegi hau aldatzen ez den bitartean, gero eta zailagoa izango zaio hainbat erakunde eta talderi instituzioekiko menpekotasuna haustea eta hauek daramaten politika lotsagarria salatzeko dinamika garatzea. Azken urte honetan euskararen aurkako eraso indartu denean, «tolerantzia» aldarrikatu dute instituzioek eta bertan nagusi diren indarrek, baina une berean Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua ez da gai izan tolerantzia gure kasuan suizidioa dela aldarrikatzeko borroka ideologikoaren planoan.

EHEren ustez, hirugarren lehentasuna instituzio eta indar politikoeikiko Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduak nola jokatu behar duen finkatzeko minimoak definitzea da. Minimo horien azpitik, Euskararen Gizarte Mugimenduak instituzio eta indar politikoen jarrera salatu beharko luke beldurrik gabe.

NAZIO MAILAKO BILGUNE INTEGRALAZ

Hau guztia dela eta, Euskararen Gizarte Mugimenduaren erreferentia urteetan izan den EKBk, euskara alorrean gertatu den dispertsioari aurre egiteko berrantolaketa burutu duen arren, ez du bere helburua lortu. EHEren ustez, ez da egon Euskararen Gizarte Mugimendua osatzen duen hainbat talde eta erakunderen aldetik Bilgune Nazionala indartzeko borondate politikorik. Erakunde nazionalak egon badaude, baina guztiak benetan batu eta ordezkatzeko gaituen bilgunerik ez. Hizkuntz Politika ofizialen aurrean, Euskararen Gizarte Mugimendua sakabanaturik azaltzen da, aurre egiteko indarrik gabe.

EHEren ustez, laugarren lehentasuna Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduaren Nazio Mailako Bilgunea sortzeko urratsak ematea da. Nola ez, oinarritzko abiapuntua gaur EKBn koordinatzen diren indarrak eta EKBtik kanpo dauden Euskara Elkarte eta ikastolak biltzea litzateke.

EUSKARAREN ALDEKO PLATAFORMA HERRITARREZ

Hau izan da agian, Euskaldunon Egunkariaren sorrerarekin batera, azken urteotan Euskararen Gizarte Mugimenduak eman duen berrikuntzarik azpimarragarriena: Euskara Elkarteak. Euskararen erabilera pertsonala eta kolektiboa oinarri bakartzat hartuz, euskararen aldeko dinamika berritua bideratu dute hainbat herritan, prentsa lokala, euskal jaiak, motibazioa eta euskal kultura, oro har, bultzatuz. EHE-

ren ustez, garai batean EHE eta Euskara Elkartearen artean sortu zen herri mailako gatazka gainditu da zorionez. Argi geratu da, herriz herri, beharren arabera bi egiturak elkarrekin edo bietako bakarrak funtziona dezakeela elkar lehian aritu gabe, oso lan mota eta lan era ezberdinak baitituzte.

EHEren ustez, bosgarren lehentasuna Euskara Elkarteak Euskal Herriko herri nagusi guztietara zabaltzea da, milaka baitira EHE bezalako talde batean militatu ez arren, Euskara Talde batean parte hartuko luketen herritar euskaldunak. Eta, bestalde, begi onez ikusten du Euskara Elkartearen nazio mailako bilgune bat lortzea, lehen aipatu den ikuspegi nazionala garatzeko, baina beti ere EKBn biltzen diren erakundeekin eta ikastolekin Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendua-ren Bilgune Nazionala osatzeko perspektiba galdu gabe.

PRESIO, SALAKETA ETA BORROKA IDEOLOGIKOAZ

Baina bestalde, izugarri ahuldu da euskararen aldeko presio soziala urteotan. Euskararen aldeko diskurtso politikoa eta jarrera indartu diren unean, izugarri ahuldu da salaketa eta salaketan oinarritutako borroka ideologikoa. EHEren ustez, Iruñea eta Gasteizko Gobernuen Aurrekontu murrizten aurrean, Ararteko erdaldunaren izendapenaren aurrean, edota Arabako BBNetan esan direnen aurrean, oso larria da Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduak erakutsi duen erantzun eskasa. EHE taldea oso ahuldurik egoteak zer ikusia du arlo honetako balantze tristean, baina gure ustez, Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduak salaketa dinamika baztertzearen ondorioa ere bada presio sozialaren beherakada.

EHEren ustez, seigarren lehentasuna presio soziala areagotzeko salaketa eta borroka ideologikoa sakondu beharra da. Ildo horretan desobediencia zibilak euskararen aldeko dinamikan eta salaketan funtsezko betebeharra izan behar duela uste du EHEk. Aurrera begira, beste dinamikak baztertu gabe, EHEk desobediencia zibilaren gaia landuko du. Dena dela, Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduak presio soziala lantzeko bideak landu behar dituela uste du EHEk, ezin baita horrelako ardura EHEren bizkar soilik utzi.

LAN SEKTORIALEZ

Euskaldunon Egunkaria eta UEMA dira, zalantzarik gabe esparru honetan eman diren aurrerapauso ugarien islada nagusia. Horrelako oihartzuna izan ez duen arren, azpimarratzekoak dira era berean AEKK

«EHEren ustez, Iruñea eta Gasteizko Gobernuen Aurrekontu murrizten aurrean, Ararteko erdaldunaren izendapenaren aurrean edota Arabako BBNetan esan direnen aurrean, oso larria da Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduak erakutsi duen erantzun eskasa»

**«Herri Mugimendu,
sindikatu, indar
politiko, elkargo profesio-
sional, enpresa,
instituzio gehienek ez
dute oraindik barneratu
beraiek ere euskararen
aldeko agente dinamiko
bihurtu behar dutela»**

euskararen irakaskuntza hobetzeko jorrotutako bidea edota Irakaskuntza alorrean eman den euskarazko irakaskuntzaren indartzea eta osatzea «Euskaraz Bizi» bezalako ekimenekin. EHEren ustez, arlo honek argi eta garbi azaldu du kalitatezko herri ekimenak direla aurrera jotzen dutenak eta ezinbestekoa dela gaur gutxi landuta eta landu gabe dagoen hainbat esparrutan ekimenak lantzea, hala nola, Kontsumitzaileen Euskal Elkarte, Euskara eta Epaitegi mundua...

EHEren ustez, zazpigarren lehentasuna euskararen erabilpen esparrutan euskararen aldeko kalitatezko ekimen berriak sortzea da. Baina bestaldetik, EHEk uste du ahalegin berezia egin beharko litzatekeela lan munduaren inguruan Euskararen Aldeko Lan Taldeak sortzeko. Medikuen artean osatu dena edota Administrazioan, Telefonika eta Posta Nafarran sortu diren bezala, Kutxetan edota Banketan, Ostalari-tzan... Euskara Talde espezifikokoak sortu beharko lirateke lan munduan barnetik eragiteko, eta guztiak EKBko sail berri batean bildu.

EUSKARAREN NORMALKUNTZAN BESTEEK DUTEN INPLIKAZIOAZ

Azkenik, ezin bukatu lantxo hau Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendutik at dauden talde, erakunde, instituzio eta pertsonak aipatu gabe. Euskararen Normalkuntza gizarte osoaren funtsezko betebeharraren den arren, narratza izan da Euskararen Aldeko Gizarte Mugimendutik at dauden antolaketa sozialen jokabidea, gehienetan. EHEren ustez, askok instituzioengan eta Euskararen Gizarte Mugimenduko taldeengan utzi dute euskararen aldeko lana. Herri Mugimendu, sindikatu, indar politiko, elkargo profesional, enpresa, instituzio gehienek ez dute oraindik barneratu beraiek ere euskararen aldeko agente dinamiko bihurtu behar dutela, guztiei eskatu behar zaie beren buruaren euskalduntzearen arduradunak bilaka daitezela.

EHEren ustez, zortzigarren lehentasuna Hitzarmengintzaren bidez lantzen hasi den Euskararen Aldeko Akordioa esparru honetara zabaltea da. Ezinbestekoa da Euskararen Aldeko Gizarte Mugimenduak beste erakunde sozialekin, EKBren bidez, adibidez, beren burua euskalduntzeko eta hizkuntz praktika hobetzeko hitzarmena bultzatzea. Ez dugu euskara normalizatuko euskara euskaldunen edota euskararen aldeko egituren lanabesa ez den heinean.